

Euskal Herrian bizi diren magrebtarren eta latinoamerikarren akulturazio-prozesua eta osasun psikologikoa

Edurne Elgorriaga, Ainara Arnoso, Cristina Martínez-Taboada, Eneritz Balerdi eta Maddi Berasategi
Unibertsitateko irakasleak (Psikologia Fakultatea, UPV/EHU) eta psikologoak

Ikerlan honetan, Euskal Herrian bizi diren etorkinen hautemandako estresa eta ongizate-maila eta aldagai horien aurrekariak neurtzen dira, generoaren eta jatorriaren arabera egon daitezkeen desberdintasunak kontuan hartuz. 405 emakume eta gizon etorkin elkarriketatu ziren bai Latinoamerikakoak bai Magrebekoak, eta 306 emakume eta gizon euskaldun. Emaizta nabarmengarrienek adierazten dute estresa eta ongizate-maila ertainak direla, eta Magrebeko etorkinek Latinoamerikakoekin eta euskaldunekin konparatuta estres gehiago eta ongizate gutxiago adierazten dutela. Horrela, Magrebeko etorkinekin baieztatzen da akulturazioaren estresaren hipotesia eta Latinoamerikako etorkinen egoera esplikatzeke egokiagoa da atzeritar osasuntsuaren paradoxa. Azkenik, ikusten da estresaren eta ongizatearen aurrekariak desberdinak direla jatorri kulturalaren arabera.

GAKO-HITZAK: Akulturazio-estresa · Ongizatea · Immigrazioa · Generoa · Distantzia kulturala.

Latin American and Maghrebian acculturation process in the Basque Country and its influence on mental health

The aim of this study is to analyze the level and predictive factors of perceived stress and life satisfaction of immigrants actually live in the Basque Country, and to analyse the influence of gender and cultur origin. The sample is composed of 405 women and men from Latin America and the Maghreb and 306 natives women and men. Results show moderate levels of stress and life satisfaction. Immigrants from the Maghreb show greater stress and less satisfaction than Latin American immigrants and natives. The acculturation stress hypothesis explains the stress and satisfaction levels of Maghrebian immigrants, and the health immigrant paradox was plausible in the case of Latin American immigrants. Finally, the predictors of stress and satisfaction was different in each group.

KEY WORDS: Acculturation stress · Satisfaction · Immigration · Gender · Cultur distance.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.103.2017.4>

Jasotze data: 2017-07-03 *Onartze data:* 2017-07-21

1. Sarrera

Azkeneko urteetan Espainiako Estatura iristen diren pertsona atzeritarren kopuruak behera egin du: 2008. urtean 599.074 pertsona ailegatu baziren, 2014an 305.454 pertsona izan ziren ailegatu zirenak (INE, 2014). Hala ere, etorkinen presentzia handia da, azken datuen arabera, Espainiako Estatuan 4.549.858 pertsona atzeritar bizi dira eta horietatik 142.392 pertsona Euskal Autonomia Erkidegoan daude eta 54.431 Nafarroan (INE, 2017).

Beren jatorrizko herrialdetik lekua aldatu eta beste testuinguru batean kokatzen diren pertsonak gizarte berrira trantsizio eta egokitzapenaldi bat hasten dute, akulturazio-prozesua ere deitu zaiona (Berry, 1997). Prozesu horretan zenbait aldaketa gertatzen dira (Organista, Organista eta Kurasaki, 2002), hala nola etena jatorrizko herrialdearekin (Achotegui, 2004), gizarte hartzailearen kultura eta kodigoekin kontaktua eta horien ikaskuntza (Ward eta Kennedy, 1999), oinarriko beharrak asetzeko errekursoak bilatzeko premia eta talde arteko erlazioen ulermen berria (Prilleltensky, 2008). Aldaketa eta egoera berri horietan sor daitezkeen arazoek estres-maila altua edota ongizate eta osasun mentaleko arazoak sor ditzakete, pertsonak ez badu taldeko eta banakako errekurso nahikorik arazoari aurre egiteko (Ward, Bochner eta Furnham, 2001).

Akulturazio-prozesua eta osasun psikologikoaren ikerketa eta teoriak

Akulturazio-prozesuaren eta osasun psikologikoaren arteko erlazioa aztertu duten hainbat ikerketa ondorio ezberdinetara iritsi dira. Hala, ikerketa-lerro batek *atzeritar osasuntsuaren paradoxaren hipotesia* babesten du (Markides eta Coreil, 1986). Autore horiek defendatzen dutenaren arabera, biztanleria atzeritarraren osasun fisikoa eta mentala berdina edo hobea da biztanleria autoktonoarekin alderatuta edota herrialde hartzailean jaiotako aberkideekin alderatuta, nahiz eta haien egoera sozioekonomikoa okerragoa izan. Emaidza horiek gerta daitezke migrazio-prozesuan pertsona osasuntsuenen hautaketa bat gertatzen delako, edota osasun-arazoak denboraren poderioz azaltzen direlako (Vega *et al.*, 1998). Halaber, babesfaktore soziokulturalen ondorioz gerta daiteke, adibidez, Finch eta Vega-k (2003) demostratu zuten erlijio-sinesmenak edukitzeak babesten zuela osasun mentala. Europa mailan osasun psikologikoaren inguruan egindako zenbait ikerketak adierazi dute etorkinen estres-maila (Amponsah, 2010; Elgorriaga, Ibabe eta Arnoso, 2016; Singhammer eta Bancila, 2011) eta ongizatea (Sam, 1998) bertako populazioarekin alderatuz berdina edo hobea dela.

Alabaina, ikerketa gehiago dira adierazten dutenak etorkinen estres- eta ongizate-maila bertakoena baino okerragoa dela (Baltatescu, 2005; Bartram, 2011; Wittig *et al.*, 2008). Emaidza horiek *akulturazioaren estresaren hipotesia* defendatzen dute, hau da, akulturazioaren prozesuaren ondorioz osasuna kaltetzen dela (Berry eta Sam, 1996). Zehazki, Europako ikerketa batzuek aditzera eman dute etorkinek estres gehiago (Irfaeya, Maxwell eta Krämer, 2008; Singhammer eta Bancilla, 2011) eta ongizate gutxiago (Baltatescu, 2005) adierazten dutela bertako pertsonekin alderatuta.

Akulturazio-prozesuaren eta osasun psikologikoaren arteko erlazioa azaltzen duten eredu teoriko nagusiak Lazarus eta Folkman-en (1984) teoria transakzionalean oinarritzen dira, non ulertzen duten estresa edo ondoeza inguruaren ezaugarri eta banakoaren gaitasun eta balorazioaren fruitu dela. Definizio horretan oinarrituz eta beste autore batzuekin bat eginez (Birman, Trickett eta Buchanan, 2005; Prilleltensky, 2008), eredu horiek babesten dute akulturazio-prozesuan sortzen den tentsioa banako, erlazio, komunitate eta testuinguru faktoreen analisisietatik ulertu behar dela, jatorrizko herrialdearen eta herrialde hartzailearen egoerak kontuan hartuz (Berry, 1997; Berry *et al.*, 1987; Ward *et al.*, 2001). Horretarako aldagai batzuk zehaztu dituzte, non, ezaugarri soziodemografikoak eta prozesuarenak neurtzen dituzten, eta desberdintzen dituzte migratu aurreko aldagaiak (adibidez, hezkuntza, emigratzeko egitasmoak, gizarte berriko egonaldiarekiko iguripenak eta lan-egoera migratu baino lehen) eta jomuga den gizartean sortzen direnak (adibidez, egonaldiaren iraupena, egoera sozioekonomikoa, akulturazio-estrategiak, hautemandako diskriminazioa, babes-sareak eta kontaktua). Era berean kontaktuko gizarteek (jatorrizkoa vs hartzaileak) dituzten faktore sozial, politiko eta demografikoak neurtzen dituzte, baita euskarri soziala eta komunitatea osatzen duten beste taldeekiko jarrerak ere. Aldagai horien ikerketak etorkinen heterogeneotasun eta proiektu migratzaile gerturatzeko aukera ematen du eta, horrela, testuinguru eta era zehatz batean osasun psikologikoaren ezaugarriak aztertzea ahalbidetzen du (Birman *et al.*, 2005). Uste horiek Prilleltensky-rekin (2008) bat datoz, hau da, etorkinen ongizatea gertakari maila anitzekoa, dinamikoa eta elkarren menpekkoa dela. Maila anitzekoa, faktore azaltzaileak maila pertsonalekoak, taldekoak, erakundekoak eta kulturalak izan daitezkeelako; dinamikoa, aldagaiek elkarri eragin diezaioketelako; eta elkarren menpekkoa, hartzailearen testuinguruaren ezaugarriek talde kulturalaren ezaugarri eragiten dietelako, eta horrela, talde bakoitzari baldintza ezberdinak ezarri. Azken alderdi horretan sakonduz, egiaztatu da gizarte hartzaileak baldintzatzen duela etorkinak oinarritzko errekurtsoetara duen sarbidea, akulturazio-prozesua erraztuz edo zailduz kategoria sozial batzuen arabera, hala nola jatorri kulturalaren arabera (Ward eta Kagitcibasi, 2010) edo generoaren arabera (Gregorio, 1997).

Akulturazio-prozesuak, jatorri kulturala eta distantzia kulturala

Gizarte berri batera ailegatzean, beste gauza batzuen artean, azaleratzen dira bertako kulturak eta jatorrizko kulturak dituzten desberdintasunak. Gizarte bakoitzak ditu ezaugarri batzuk pertsonak ikasten dituztenak sozializazio-prozesuan eta erakusten dituztenak gizarte bakoitzean zer den baliagarria edota onartzen dena, eta zer gauza dauden gaizki ikusiak edo ez diren onartzen. Ezaugarri horiek, hau da, gizarte batek erabiltzen dituen hitzek, keinuek, ohiturek, arauak, hizkuntzek edota sinesmen multzoek kultura zehatz bat osatzen dute (Oberg, 1954). Pertsona bat beste gizarte batera ailegatzen denean kultura desberdin batean kokatzen da, non ezagunak ziren eredu kulturek zentzua galtzen duten, eta beste berri batzuk ulertu edota ezagutu behar ditu (Moro eta Lachan, 2004; Páez eta Zlobina, 2007). Hautematen diren desberdintasunek esplikatzeko gertatzen den talka kulturala. Kontzeptu hori erabiltzen da identifikatzeko kultura berri batean bizitzeagatik pertsona batek sufritu dezakeen desorientazioa, frustrazioa edota depresioa (Smith eta Bond, 1993).

Testuinguru ezberdinetan egindako ikerketek zera frogatu dute: gizarte hartzailearekin zenbat eta distantzia kultural handiagoa duten pertsonak (erreal edota hautemana) orduan eta zailtasun sozioekonomiko, psikosozial eta kultural handiagoei aurka egin behar dietela (adibidez, Berry, 1997; Nesdale eta Mak, 2003; Ward eta Kennedy, 1999; Ward, Bochner eta Furman, 2001); izan ere, esfortzu handiagoa egin behar dute ulertzeko eta ikasteko hizkuntza, ohiturak, komunikaziorako behar diren trebetasun sozialak, arauak, rolak, sinesmenak, balioak eta abar; eta gainera, gutxiespen-egoera gehiago pairatzen dituzte lan-arloan, etxebizitza bilatzean edota giza harremanetan. Zailtasun kopuru handiago horrek azaltzen du estres-maila altuagoa eta ongizate gutxiago izatea testuinguru hartzailearekiko distantzia kultural handiagoa dutenean edo hautematen dutenean (Smith eta Bond, 1993; Ward *et al.*, 2001).

Euskal Herriaren kasuan, pertsona saharaiarrak eta Ipar Afrikakoak dira distantzia kultural handiena hautematen dutenak; Latinoamerikarren kasuan, berriz, distantzia maila ertainekoa da, eta Ekialdeko europarrak dira gertuko sentitzen direnak (Basabe, Zlobina eta Páez, 2004). Halaber, biztanleria magrebtarrak eta saharaiarrak dira egoera sozial prekarioena bizi dutenak beren diru-sarrerak, hezkuntza, estatus sozial eta estatus legala kontuan harturik (Martínez-Taboada, Arnos eta Elgorriaga, 2006; Sevillano *et al.*, 2013). Era berean, beste komunitateetan gertatzen den moduan (Díez Nicolas, 2010; Navas eta Cuadrado, 2003), Euskal Herrian magrebtarrak eta saharaiarrak dira Europarekin, garatutako herrialdeekin, Asiarekin edo Latinoamerikarekin alderatuz okerren baloratzen diren taldeak herrialde hartzaileko biztanleriaren aldetik (Arnos, Martínez-Taboada, Elgorriaga eta Otero, 2009).

Akulturazio-prozesuak eta genero-ezberdintasunak

Gizarte hartzailean egiten diren desberdintasunak etorkinekiko haien jatorriaren arabera ez dira murrizten bakarrik kulturaren arlora. Sortzen diren erlazio asimetrikoak eta baldintzatzaileak beste kategoria sozialetara zabaltzen dira, hala nola generora (Gregorio, 1997). Generoa sozialki eraikitako kontzeptu bat da, kultura bakoitzak desberdintasun sexualak oinarri hartuta gizonetik eta emakumeetik garatzen dituzten ideia, sinesmen, rol eta irudikimen multzoa (Lamas, 1997). Eraikuntza sozial horrek pertsonen bizi soziala antolatzen du, baita botere-erlazioak ezartzeko modu bat eragin ere (Scott, 1990). Horrela, generoak baldintzatzen ditu pertsonetik dauden igurikimenak, eskaerak, rolak, zailtasunak, aukerak eta abar, bai jatorrizko gizartean baita gizarte hartzailean ere.

Emakumeek bizi dituzten eskasia sozioekonomikoak, ezberdintasunak diru-sarreretan, beste pertsonen zaintzaren ardura eta genero-indarkeria dira emakumeek oro har gizonen baino osasun mental okerragoa azaltzearen arrazoi batzuk (WHO, 2010). Akulturazio-prozesuetan ikerketek adierazi dute atzerriko emakumeen kasuan, atzerriko gizonekin alderatuz diskriminazio-egoera gehiago jasaten dituztela (Solé, 2000), arazo sozioekonomiko eta legal gehiago dituztela (Standing, 2000) eta gainkarga eta rol eta balioen arteko gatazkari aurre egin behar diotela (Aroian, Norris eta Chiang, 2003). Hau da, genero arteko desberdintasunak mantentzen dira

akulturazio-prozesuetan. Egoera horiek denek justifikatzen dute emakume etorkinen osasun psikologikoa gizonenarekin konparatuta okerragoa izatea (Amponsah, 2010; Elgorriaga *et al.*, 2016; Jasinskaja-Lahti, Liebkind eta Perhoniemi, 2006; Patiño eta Kirchner, 2008).

2. Ikerketaren helburuak eta hipotesiak

Literatura zientifikoaren errebisioak azpimarratzeko diren ideia interesgarri batzuk azaleratzen ditu. Lehenik eta behin, egiaztatu da prozesu migratzaileak efektu desberdinak dituela etorkinen osasun mentalean eta emigratzeak ez duela beti suposatzen estresa agertzea edo ongizatea gutxitzea. Orobat, ikerketek nabarmendu dute testuinguru kulturalak eta talde migratzailearen ezaugarriek (adibidez, kultura, generoa, hezkuntza, emigratzeko egitasmoak, gizarte berrian egonaldiarekiko iguripenak eta lan-esperientzia) baldintzatzen dituztela akulturazio-prozesuko ezaugarriak (adibidez, lan- eta etxebizitza-egoera, harreman sozialak eta diskriminazio-prozesuak), eta, ondorioz, hautemandako estres- eta ongizate-mailak (adibidez, Prillelensky, 2008; Ward *et al.*, 2001).

Euskal Herria testuingurura bideratuz ikerketa batzuk egin dira aurreiritzi eta diskriminazio-prozesuak ezagutzeko (Arnoso *et al.*, 2009), akulturazio-prozesua deskribatzeko (Basabe *et al.*, 2004; Basabe, Páez, Aierdi, eta Jiménez-Aristizabal, 2009) edo etorkinen ongizatea neurtzeko (Sevillano *et al.*, 2013), baina estresak arreta gutxiago jaso du. Interesgarria izango litzateke estres-maila eta ezaugarriak neurtzea eta ongizatearen azterketan sakontzea, ezagutzeko Euskal Herrian bizi diren etorkinen ongizatea eta estresa zer aldagaik aurratsaten duten. Akulturazio-prozesuak aztertzen direnean beharrezkoa da ikerketa espezifikoak egitea testuinguru bakoitzean, talde bakoitzarekin ezaugarriak aldatzen direlako eta informazio espezifikoa behar delako modu egokian ulertzeko testuinguru bakoitzeko errealitatea (Berry, 1997; Birman *et al.*, 2005). Modu horretan, baliagarriak eta espezifikoak diren elementuak ezagutzen dira populazio zehatz batekin lan egiteko, bai prebentzioko esku-hartzeak garatzeko bai interbentzioko esku-hartzeak egiteko estres-maila altua denean edo ongizatea baxua denean.

Honako ikerketa hau Magrebeko eta Latinoamerikako atzerriarretan zentratzen da, Euskal Herrian duten gehiengo presentziarengatik, bertako kulturarekiko duten distantzia kulturala desberdina delako bai erreala (Hofstede, 1991) bai hautemana (Basabe *et al.*, 2004), eta bertako biztanleriak desberdin baloratzen dituen bi talde direlako (Arnoso *et al.*, 2009; Ikuspegi, 2010). Horrek emango digu aukera neurtzeko distantzia kulturalaren eragina eta eskainiko dizkigu baliabideak erantzunak emateko etorkin kopuru garrantzitsu bati. Helburuak hauek dira:

- Ezagutzeko Euskal Herrian bizi diren etorkinen akulturazio-prozesuaren ezaugarriak, kultura eta sexua kontuan hartuta.
- Zehazteko akulturazio-prozesuan zein faktorek aurreran dezaketen magrebtarren eta latinoamerikarren estres- eta ongizate-maila.
- Aztertzeak ea biztanleria migratzaileak, euskal biztanleriarekin alderatuz eta sexua kontuan hartuz, estres gehiago eta ongizate gutxiago duen.

Ikusita prozesu migratzaileak heterogeneoak direla (Birman *et al.*, 2005) eta jatorri kulturalak eta generoak baldintzatzen dituztela akulturazio-prozesuen ezaugarriak (Aroain *et al.*, 2003; Ward eta Kagitcibasi, 2010) eta markatzen dituztela egon daitezkeen zailtasunak (adibidez, hizkuntzarekikoak, lana eta etxebizitza lortzeko, dauden behar sozialak, sare sozial txikiagoak edo diskriminazio handiagoa), espero da Magrebeko etorkinek Latinoamerikako etorkinekin alderatuta zailtasun gehiago edukitzea akulturazio-prozesuan eta, aldi berean, emakumeek gizonek baino zailtasun gehiago edukitzea (Hip. 1). Halaber, espero da akulturazio-prozesuen zailtasunak (adibidez, hizkuntzarekikoak, lana eta etxebizitza lortzeko, dauden behar sozialak, sare sozial txikiagoak edo diskriminazio handiagoa) hautemandako estresaren eta ongizatearen aurrerale izatea. Izan ere, akulturazio-prozesuan pertsonak bizi dituzten aldaketek eta zailtasunek estres-maila altua eta ongizate-arazoak sor ditzakete (Birman *et al.*, 2005; Prilleltensky, 2008; Ward *et al.*, 2001) (Hip. 2). Estres-akulturazioaren hipotesian oinarrituz (Berry eta Sam, 1996) eta akulturazio-prozesuan bizi diren aldaketak eta zailtasunak kontuan hartuz, espero da etorkinek bertako biztanleek baino estres-maila altuagoa eta ongizate-maila okerragoa izatea. Era berean, eta jakinda bi etorkin taldeek distantzia kulturala desberdina dutela eta magrebtarren kasuan handiagoa dela, espero da magrebtarrek latinoamerikarrek baino estres gehiago eta ongizate gutxiago adieraztea (Martínez-Taboada *et al.*, 2006; Sevillano *et al.*, 2013) (Hip. 3). Azkenik, espero da emakumeek gizonek baino estres gehiago eta ongizate gutxiago azaltzea (Jasinskaja-Lahti *et al.*, 2006; Patiño eta Kirchner, 2008) (Hip. 4).

3. Metodologia

3.1. Lagina

Lagina Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 405 etorkinek osatzen dute. Horietatik % 50,9 emakumeak dira ($n = 206$) eta % 49,1 gizonak ($n = 199$). Gazteak dira ($M = 33,71$; urte; $SD = 8,82$) eta 4 urte daramatzate Euskadin ($M = 48,13$ hilabete; $SD = 39,94$). Jatorriari dagokionez, % 50,4 Magrebetik dator ($n = 204$) eta % 49,6 Latinoamerikako herrialdeetatik ($n = 201$). Bi talde horiek hartu dira, kultur distantzia irizpide hartuta, talde horiek distatzia-maila desberdinak irudikatzen dituztelako bertako kulturarekiko (Hostede, 1991). Gainera, Basabe eta besteek(2004) egiaztatu zuten Magrebeko taldeak, Latinoamerikako taldearekin konparatuta, bertako jendearekiko desberdintasun handiagoa hautematen zuela.

Beste alde batetik, eta konparazioak egiteko, bertako pertsonak osatutako lagin adierazle bat ere egin zen ($n = 306$) INEren irizpideak kontuan hartuta (INE, 2010: batez besteko adina 47,75, % 51,44 emakumeak eta % 48,55 gizonak). Horrela, % 49,7 emakumeak ziren eta % 50,3 gizonak, eta batez besteko adina 44,76 urtekoa.

3.2. Datu-bilketako tresnak eta galde-sortak

Akulturazio-prozesua deskribatzeko: ad hoc galdetegi bat egin zen Berry-k (1997) eta Ward eta besteek (2001) proposatutako ereduetan oinarrituz. Ezaugarri hauek ezagututa jakin ditzakegu prozesu honetan etorkinek bizi dituzten zailtasunak:

- a) Aldagai soziodemografikoak: sexua, jatorrizko nazionalitatea, adina, familia-egitura (bikotea, seme-alabak eta beste familiarrak), prestakuntza eta gaztelania-maila.
- b) Migratu aurreko egoera: emigratzeko egitasmoa, gizarte berriko egonaldiarekiko iguripenak eta lan-egoera migratu baino lehen.
- c) Jomuga den gizartean duten egoera: zenbat denbora herrialde berrian, lan-egoera, egoera legala, etxebizitza, aurre-egite psikosoziala (harrera, egokitzapen psikosoziala edo autonomia soziala), beharrak (dokumentazioa, laguntza sozialak, lana eta etxebizitza).

Hautemandako distantzia kulturala: Bergamik eta Bagozzik (2000) diseinatutako eskala grafiko bat erabili zen. 2 borobil desberdinekin jatorrizko kultura edo gizartea, eta kultura edo gizarte berria irudikatzen dira, bata bestearen parean jarrita. Horrela, eskala horrek 8 marrazki edo aukera ematen ditu (bi borobil guztiz solapatutik, bi borobil guztiz separatura). Gainera, marrazki bakoitza idatzizko aukera batekin lotzen da (1 = guztiz hurbil; 8 = guztiz urrun). Modu horretan distantzia kulturala edo talde zehatz batekiko identifikazio-maila neurtzen da.

Hautemandako diskriminazioa: beste ikerketa batzuetan bezala (Basabe *et al.*, 2009; Jasinskaja-Lahti *et al.*, 2006), Likert motako lau item sortu dira (1 = ezer ez; 5 = asko). Adibidez, (*Zer diskriminazio-maila hautematen duzu zure lantokian?*). Fidagarritasuna ona izan zen, alpha ,75.

Harreman eta babes sareak: Likert motako sei item sortu dira, Basabek, Paezek eta Zlobinnak (2004) egindako lanean oinarrituz, 3 item harremanak neurtzeko (1 = oso gutxi; 5 = asko) eta beste 3 item babesa neurtzeko (1 = baxua; 5 = altua). Bi kasuetan hiru talde desberdin kontuan hartzen dira (endotaldea, beste etorkinen taldeak eta bertakoak). Adibidez, (*Zer harreman-maila duzu bertako pertsonekin?*) Galdera bakoitza indibidualki analizatzen da.

Estresa: Perceived Stress Scale (PSS-14; Cohen, Kamarak eta Mermelstein, 1983; gaztelaniazko bertsioa Remor eta Carrobles, 2001). Eskala honek neurtzen du zer puntutaraino pertsona batek bizi dituen gertaerak auresanezinak, kontrolaezinak diren edota gainkarga eragiten duten. Likert moduko 14 item ditu (0 = inoiz ez; 4 = sarritan) eta egokia da etorkinen laginekin erabiltzeko (Navara eta James, 2002; Patiño eta Kirchner, 2008). Fidagarritasuna ona izan zen, alpha ,82.

Ongizatea: Satisfaction With Life Scale (SWLS; Diener *et al.*, 1985; gaztelaniazko bertsioa Atienza *et al.*, 2000). Likert moduko 5 itemek osatzen dute eskala hau (1 = guztiz desados; 5 = guztiz ados) eta bizi-ongizatea edota iguripen eta lorpenen arteko balorazioa neurtzen dute. Ikerketa desberdinek ikusarazi dute egokia dela etorkinen laginekin lan egiteko (p.e., Basabe *et al.*, 2009; Neto, 1995). Fidagarritasuna ona izan zen, alpha ,88.

3.3. Prozedura

Laginarekin kontaktuan jartzeko bi modu erabili ziren: alde batetik, Gipuzkoako Gurutze Gorrira joan ginen, laguntza eskatzen duten etorkinekin egoteko eta

ikerketa-taldeko kide batek galderak egin zizkien. Beste alde batetik, autonomia den jendea aurkitzeko eta bertako jendearekin hitz egiteko *elurrezko bolaren* teknika erabili zen (Taylor eta Bogdan, 1986). Prozedura horren bidez, ditugun sare sozialak erabili ziren bai etorkinekin bai bertako jendearekin kontaktuan jartzeko. Gutunazal batean sartu genuen galdetegia eta zuzenean edo kontaktu baten bitartez parte-hartzaileei eman genien. Haien modu autonomo batean bete eta bueltatzen zuten, bai zuzenean ikertzaile taldeari bai kontaktuaren bitartez.

Galdetegia eta tresnak gaztelaniaz zeuden. Kasu guztietan anonimotasuna eta konfidentzialtasuna gorde ziren. Hori ziurtatzeko galdetegiaren hasieran testu batean aipatzen zen. Galderak presentzialki egiten zirenean, ikertzaileak zuzenean esplikatzeko ez zela izena hartzen, datu guztiak batera aztertzen zirela eta ikertzaileak, nahiz eta jakin pertsonaren erantzunak, ez zuela ezer esango.

Ikerketa transkulturaletan edo atzerriko etorkinekin egiten direnetan prozedurarekin zerikusia duten alborapenak ager daitezke, hori ekiditeko zenbait baliabide martxan jarri ziren (Vergara eta Balluerka, 2000): hau da, beste ikerketa batzuetan etorkinekin erabilitako tresnak aukeratu ziren, galde-sortak egin zituen pertsonak gaitasun kulturaletan entrenamendua jaso zuen eta bitartekarien laguntza izan genuen gaztelania menperatzen ez zuten pertsonen laguntzeko. Gainera, ikerketa piloto bat egin zen etorkin beste talde batekin (N = 103) zihurtatzeko ulertzen zitzutela egindako galderak eta probatzeko tresnen fidagarritasuna.

3.4. Datu-analisiak

Datuen tratamendurako SPSS 20 programa erabili zen. Akulturazio-prozesuen ezaugarriak ezagutzeko eta kultura eta generoaren arabera desberdintasunik dagoen aztertzeko analisi deskribatzaileak egin ziren: alde batetik, ANOVAk erabili ziren aldagai kuantitatiboekin batez bestekoetan desberdintasunik dagoen analitzeko eta Tukey probak zehazteko zer talderen artean azaltzen ziren aurkitutako desberdintasunak; beste aldetik, aldagai kualitatibo edo kategorikoekin khi karratuaren analisiak egin ziren.

Lau erregresio lineal anitzeko analisiak egin ziren etorkinen estresa eta ongizatea aurreratu dituzten aldagaiak ezagutzeko, bi Mabregeko populazioarekin eta bi Latinoamerikako populazioarekin. Hori egin baino lehen korrelazio-analisiak egin ziren talde bakoitzean identifikatzeko zer aldagai erlazionatzen ziren estresarekin eta ongizatearekin. Kualitatiboak eta kategorikoak ziren aldagaiak dummy aldagaiak bihurtu ziren korrelazioak egin ahal izateko.

Eta azkenik, aztertzeko ea biztanleriak migratzaileak bertako biztanleekin alderatuz eta sexua kontuan hartuz estres gehiago eta ongizate gutxiago zuen, bi ANOVA analisi egin ziren (2 x 3 eredu) parte-hartzaileen sexua (gizona vs emakumea) x jatorri kulturala (Magreb vs Latinoamerika vs Euskal Herria) eginda; menpeko aldagaiak estresa eta ongizatea izan ziren.

4. Emaitzak

4.1. Akulturazio-prozesuaren ezaugarriak

Euskadin bizi diren etorkinen akulturazio-prozesuen ezaugarriak ezagutzeko zenbait aldagai neurtu dira: soziodemografikoak, migratu aurreko egoerakoak eta jomuga den gizartearen egoerakoak.

Aldagai soziodemografikoak

Lehenengo taulan ikus daitekeen bezala, aldagai soziodemografikoak aztertzean desberdintasun esanguratsuak aurkitzen dira etorkinen jatorria eta sexua kontuan hartzean. Latinoamerikako emakumeak besteekin konparatuta zaharragoak dira. Nahiz eta erdiek bikotekidea eduki, Latinomerikako gizon gehiagok bikotea dute. Hala ere, kasu guzietan ezin dira elkarrekin egon, eta egoera hori handiagoa da Magrebeko gizonen artean. Besterik, Latinoamerikako populazioan, bereziki emakumeek, Magrebeko populazioarekin konparatuta pertsona gehiagok ditu seme-alabak. Azkenik, beste familiarren inguruan galdetutakoan ikus daiteke Magrebeko gizonek beste taldeekin konparatuta gutxiagotan dituztela senideak gertu.

1. taula. Ezaugarri soziodemografikoetan dauden desberdintasun esanguratsuak.

	Giz. Magreb	Emak. Magreb	Giz. Latinoam.	Emak. Latinoam.	p
Adina	32,11 ^d (7,72)	32,71 ^d (8,74)	32,01 ^d (9,03)	37,03 ^{abc} (9,01)	,000
Familia-egitura					
Bikotea dauka	% 45,2	% 37,5	% 68	% 49,2	,001
Elkarrekin daude	% 48,2	% 80	% 86,3	% 83,9	,000
Seme-alabak ditu	% 24,2	% 41,3	% 64	% 76	,000
Elkarrekin daude	% 50	% 78,8	% 60,4	% 66,7	e.e.*
Familiarrak	% 36,3	% 61,3	% 70,7	% 54	,000
Prestakuntza					
Ez dauka/Badaki irakurtzen-idazten	% 15,3	% 15	% 2,7	--	,000
Lehen eta bigarren mailakoak	% 68,5	% 62,5	% 65,3	% 63,5	e.e.*
Goi-mailakoak	% 16,2	% 22,5	% 32	% 36,5	,002
Gaztelania-maila					
Baxua	% 16,3	% 38,7	% 1,4	--	,000
Ertaina	% 52,8	% 37,3	% 4,3	% 3,4	
Altua	% 30,9	% 24	% 94,2	% 96,6	
* e.e.: ez esanguratsua. abcd: irudikatzen dute zer talderen artean dauden desberdintasunak (a = Gizon magrebtarrak, b = Emakume magrebtarrak, c = Gizon latinoamerikarrak, d = Emakume latinoamerikarrak). Desberdintasunak ezagutzeko Tukey post-hoc konparaketak egin dira.					

Lehen eta bigarren mailako formakuntza duten pertsonen kopurua berdintsua da lau taldeetan, baina badira Latinoamerikako emakume eta gizon gehiago goi-mailako ikasketak dituztenak eta Magrebeko emakume eta gizon gehiago formakuntzarik gabe edo irakurtzen eta idazten dakitenak. Gaztelania-maila (etorkinek hautematen dutena) Magrebeko pertsonak baxuagoa adierazten dute.

Migratu aurreko egoera

Oro har, jatorrizko herrialdean gehienek okupazio bat zuten, bai lanpostu bat zutelako bai ikasten zeudelako, % 8,3 bakarrik zegoen langabezian eta % 3,5ek eskusiboki etxeko lanak egiten zituen. Hala ere, emigratzeko egitasmo garrantzitsuena ekonomikoa da, familiarekin berriro biltzea bigarrena, eta, azkenik, formakuntza, beste arrazoi batzuk eta babes politikoa bilatzea. Erdientzat migrazio-proiektua denbora baterako da eta jatorrizko herrialdera bueltatu nahi dute, heren bat betiko etorri da Euskal Herrira, eta % 20k ez daki geldituko den edo ez.

2. taula. Migratu aurreko ezaugarrietan dauden desberdintasun esanguratsuak.

	Giz. Magreb	Emak. Magreb	Giz. Latinoam.	Emak. Latinoam.	p
Lan-egoera					
Lana	% 63,7	% 51,7	% 78,7	% 85,8	,000
Etxeko lanak	--	% 8,8	--	% 6,3	,004
Ikasi	% 23,4	% 20	% 21,3	% 6,3	,002
Langabezia	% 12,9	% 19,5	--	% 1,6	,000
Emigratzeko egitasmoa					
Ekonomikoa	% 79,8	% 46,3	% 65,4	% 71,7	,000
Asilo politikoa	% 2,5	% 5	% 1,3	% 2,4	e.e.*
Formakuntza	% 8,9	% 5	% 17,3	% 9,4	e.e.*
Familiarekin elkartu	% 4	% 27,5	% 12	% 7,1	,000
Beste batzuk	% 4,8	% 16,2	% 4	% 9,4	,014
Egonaldiarekiko iguripenak					
Behin betikoa	% 44,4	% 29,2	% 16	% 23,6	,000
Behin-behinekoa	% 34,7	% 50	% 57,3	% 62,2	,000
Ez daki	% 21	% 20,8	% 26,7	% 14,2	e.e.*
* e.e.: ez esanguratsua.					

Lau taldeen artean desberdintasunak ikus daitezke (2. taula). Lan-egoeraren inguruan, Magrebeko emakume gutxiagok zeukaten lanbide bat eta Latinoamerikako emakume gutxiagok ikasten zuten. Langabezia-tasak handiagoak dira Magrebeko populazioan eta etxeko lanak egitea eskusiboki bakarrik emakumeen artean ikusten da. Emigratzeko egitasmoari dagokionez, lau taldeen artean ez dago desberdintasunik formakuntza edo babes politikoaren arrazoiak aztertzean. Hala ere, Magrebeko emakumeek beste taldeekin konparatuta gutxiagotan emigratzen dute arrazoi ekonomikoengatik eta kasu gehiagotan beren herritik ateratzen dira

familiarekin biltzeko edo beste arrazoi batzuegatik. Azkenik, Magrebeko gizonen besteekin alderatuz kasu gehiagotan ikusten dute beren migrazio-proiektua behin betiko bezala eta gutxiagotan behin-behineko bezala.

Jomugan den gizartearen egoera

Elkarrizketatu diren pertsonen batez beste 4 urte daramatzate Euskal Autonomia Erkidegoan ($M=48,13$ hilabete, $DT=39,94$). Ailegatu direnetatik % 54,8k lana behar edo hobetu nahi zuen, % 32,5ek laguntza soziala eskatzen zuen eta % 23,3k dokumentazioa lortzeko laguntza behar zuen.

3. taula. Jomugan den gizartearen egoeran dauden desberdintasun esanguratsuak.

	Giz. Magreb	Emak. Magreb	Giz. Latinoam.	Emak. Latinoam.	p
Lana daukate	% 60,5	% 85	% 81,3	% 88,9	,000
Egoera legal egokia	% 80,6	% 90	% 86,7	% 92,1	,046
Etxebizitza egokia	% 74,2	% 78,8	% 90,7	% 96	,000
Autonomia					
Harrera	% 50	% 26,1	% 26,8	% 7,5	,000
Egokitzapen psikosoziala	% 36	% 47,8	% 60,7	% 80,4	
Autonomia soziala	% 14	% 26,1	% 12,5	% 12,1	
Beharrak					
Etxebizitza	% 50,8	% 58,4	% 37,3	% 26,2	,000
Hautemandako distantzia kulturala (1-8)	4,12 ^{bcd}	5,39 ^a	5,23 ^a	4,80 ^a	,000
Hautemandako diskriminazio-maila (1-5)	2,06 ^b	2,75 ^{acd}	1,70 ^b	1,94 ^b	,000
Harreman-maila (1-5)					
Jatorri berdineko pertsonak	2,96	2,75 ^c	3,28 ^b	2,89	,040
Etorkinak	2,61 ^{cd}	2,93	3,11 ^a	3,01 ^a	,009
Babes-maila (1-5)					
Etorkinak	2,16 ^{bd}	2,58 ^a	2,48	2,54 ^a	,014
Bertako pertsonak	2,65 ^{bd}	3,46 ^a	3,09	3,18 ^a	,000
abcd: irudikatzen dute zer talderen artean dauden desberdintasunak (a = Gizon magrebtarrak, b = Emakume magrebtarrak, c = Gizon latinoamerikarrak, d = Emakume latinoamerikarrak) Desberdintasunak ezagutzeko Tukey post-hoc konparaketak egin dira.					

Bertako gizartearekiko duten identifikazio-maila ertaina da ($M=4,79$; $DT=1,91$) eta hautemandako diskriminazioa baxua ($M=2,09$; $DT=1,19$). Bertako pertsonen duten harreman-maila «ertaina-altua» da ($M=3,45$; $DT=1,05$). Beste aldetik, jatorri berdina duten pertsonengandik jasotzen duten babes-maila ($M=2,62$; $DT=1,16$).

Hala ere, lau taldeen arteko desberdintasun esanguratsuak ikus daitezke (3. taula). Oro har, Magrebeko gizon gehiago daude harrera-prozesuetan (laguntza

behar dute migrazioari aurre egiteko). Gizon horiek arazo gehiago dituzte lana lortzeko eta beren egoera legala erregulatzeko, eta Magrebeko emakumeekin batera, etxebizitza-arazo gehiago dituzte.

Bertako gizartearekiko hautematen duten distantzia kulturala handiagoa da gizon magrebtarren artean eta Magrebeko emakumeetan hautemandako diskriminazioa handiago da.

Jatorri berdina dutenekin harreman-maila altuagoa da Latinoamerikako gizonetan Magrebeko emakumeetan baino, eta beste etorkinekin harreman-maila Latinoamerikako populazioan altuagoa da Magrebeko gizonetan baino. Emakumeak, bai magrebtarrak bai latinoamerikarrak, Magrebeko gizonekin konparatuta babes-maila altuagoa jasotzen dute bertako pertsonengandik eta beste etorkinengandik.

4.2. Magreb eta Latinoamerikako etorkinen estresa eta ongizatea aurreikusteko ereduak

Populazio bakoitzean estresa eta ongizatea aurreikusten dituzten aldagaiak ezagutzeko lau erregresio lineal anitzeko analisiak egin ziren (4. taula). Ongizatea analizatzean Magrebeko taldean, bost aldagai esanguratsu agertu ziren ($R^2=,20$, $F(4,202)=10,91$; $p<,001$): lan-egoera, familiarrak hurbil edukitzea, harremanak jatorri berdineko pertsonekin, etxebizitza-beharrak edukitzea eta hautemandako distantzia kulturala. Latinoamerikako taldean, berriz, zazpi faktorek esplikatzeko zuten ongizatea ($R^2=,40$, $F(6,199)=11,90$; $p<,001$): harremanak jatorri berdineko pertsonekin, laguntza sozialak edukitzea, babes bertako pertsonengandik, prestakuntza, sexua, adina eta lan-beharrak edukitzea.

Beste aldetik, estresa auresateko hiru faktore esanguratsuak izan ziren Magrebeko taldean ($R^2=,11$, $F(2,202)=8,08$; $p<,001$): laguntza sozialak, babes bertako pertsonengandik eta hautemandako diskriminazioa. Latinoamerikako taldearekin, berriz, sei aldagaik aurreikusten zuten estresa ($R^2=,19$, $F(4,199)=8,29$; $p<,001$): familiarrak hurbil edukitzea, etxebizitza-beharrak edukitzea, laguntza sozialak edukitzea, babes bertako pertsonengandik, hautemandako diskriminazioa eta autonomia.

4. taula. Estresa eta ongizatea aurreikusten dituzten aldagaiak Magreb eta Latinoamerikako populazioetan.

	Ongizatea		Estresa	
	Magreb (Beta koefizienteak)	Latinom. (Beta koefizienteak)	Magreb (Beta koefizienteak)	Latinom. (Beta koefizienteak)
Lan-egoera	,17*	--	--	--
Familiarrak hurbil edukitzea	,18**			-,19*
Harremana (jatorri berdineko pertsonak)	,16*	,20**	--	--
Hautemandako distantzia kulturala	,15*	--	--	--
Etxebizitza-beharrak	-,16*	--		,23**
Laguntza sozialak	--	-,35***	,15*	,36***
Babesa (bertako pertsonak)	--	,30***	-,24**	-,21**
Prestakuntza	--	,23**	--	--
Sexua: gizona	--	,26**	--	--
Adina	--	,19**	--	--
Lan-beharrak	--	-,16*	--	--
Hautemandako diskriminazioa	--	--	,16*	,21**
Autonomia	--	--	--	-,24**
<i>F</i> Eredua	10,91***	11,90***	8,08***	8,29***
<i>R</i> ²	,20	,40	,11	,19


* $p \leq .05$. ** $p \leq .01$. *** $p \leq .001$.

4.3. Etorकिन ongizatea eta estres-maila bertako biztanleriarekin konparatuta

Bi ANOVA analisi egin ziren (2 x 3 eredua) parte-hartzaileen sexua (gizona vs emakumea) x jatorri kulturala (Magreb vs Latinoamerika vs Euskal Herria) eginda; menpeko aldagaiak estresa eta ongizatea izan ziren. Estresa adieraztean, efektu nagusi bakarra aurkitu zen: jatorri kulturala hain zuzen ($F(1, 709)=7,58$; $p=,001$; $\eta^2=,021$). Magrebeko pertsonak ($M=1,74$; $DT=,62$) Latinoamerikako pertsonak ($M=1,57$; $DT=,64$) ($p=,001$) eta bertako pertsonak ($M=1,54$; $DT=,51$) ($p=,009$) baino estres altuagoa hautematen zuten.

Ongizatea analizatzean, jatorri kulturalaren efektua ($F(2, 701)=58,74$; $p < .001$; $\eta^2=,014$) eta interakzio-efektua esanguratsuak izan ziren ($F(2, 701)=3,15$; $p=,043$; $\eta^2=,009$). Alde batetik, Latinoamerikako ($t=-,749$; $p=,455$) eta Euskal Herriko populazioan ($t=-,297$; $p=,767$) ez dago desberdintasun esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean ongizate-mailan. Magrebeko taldean, berriz, emakumeek

gizonek baino ongizate gehiago adierazten dute ($t=2,37$; $p=.018$). Beste aldetik, Magrebeko emakumeek ($M = 3,03$) Latinoamerikako eta bertako emakumeekin konparatuta ongizate gutxiago adierazten dute ($M = 3,48$ eta $M = 3,67$) ($F(2, 253)= 17,20$; $p<.001$). Gizonen egoera aztertzean fenomeno berdina aurkitzen da, Magrebeko gizonek ($M = 2,72$) Latinoamerikako eta bertako gizonek baino ongizate gutxiago adierazte dute ($M = 3,58$ eta $M = 3,77$) ($F(2, 348)= 47,48$; $p<.001$).



1. Irudia. Ongizate-maila jatorri kultural eta sexuaren arabera.

5. Diskusioa eta ondorioak

Beste herrialde batera migratzeak eta testuinguru horretara egokitzeak ondorioak izan ditzake etorkinen osasun psikologikoan, baina horrek ez du esan nahi egoera psikologikoa beti negatiboa denik. Egokitzapen-prozesuak askotarikoak dira eta maila desberdinetako aldagaiek (indibidualak, errelazionalak, erakundekoak eta testuingurukoak) esplikatzen dituzte prozesu horien emaitzak, horien artean, pertsonak adierazten dituzten ondorio psikologikoak ezberdinak izatea (Berry, 1997; Prilleltensky, 2008): batzuek arazoak sufritzen dituzte, beste batzuek ez dute aldaketarik nabaritzen, eta beste batzuek beren osasuna hobetzen dute. Prozesuetan eta emaitzetan dauden desberdintasunak direla-eta egile batzuek gomendatzen dute testuinguru bakoitzean eta talde kultural bakoitzarekin ikerketa espezifikoak egitea (Berry, 2003). Horrela, azterlan hau burutu zen Euskal Herrian bizi diren etorkinen akulturazio-prozesuaren ezaugarriak ezagutzeko eta haien osasun psikologikoaren (estresa eta ongizatea) ezaugarriak definitzeko. Horretarako, Euskal Herrian presentzia gehien duten bi taldeak, latinoamerikarrak eta magrebtarrak, hartu ziren kontuan.

Akulturazio-prozesuaren ezaugarriak kultura eta sexua kontuan hartuta

Lehenengo helburua planteatu zen Euskal Herrian bizi diren magrebtarren eta latinoamerikarren akulturazio-prozesuaren ezaugarriak ezagutzeko, kultura eta sexua kontuan hartuta. Emaitzek adierazten dute Latinoamerikako populazioaren egoerak, bai emakumeenak bai gizonenak, berdintsuak direla eta oztopo gutxiago dituztela Magrebeko populazioarekin konparatuta. Hain zuzen ere, haien prestakuntza eta

gaztelania-maila altuagoa da, lan-esperientzia gehiago dute eta zailtasun gutxiago etxebizitza eta lan-egoera hobetzeko. Emaizta hauek bat datoz Zlobinna eta besteek (2006) aurkitu zituztenekin testuinguru eta populazio berdinean. Beste alde batetik, Magrebeko gizonak emakumeekin alderatuta eta Latinoamerikako populazioarekin alderatuta oztopo gehien duen azpitaldea da (prekarietate handiagoa du lanean, arlo legalean eta etxebizitza lortzeko arazo gehiago ditu eta haien sare sozialak txikiagoak dira). Bestetik, Magrebeko emakumeek gehiagotan emigratu dute familiarekin elkartzeko edo arrazoi desberdinengatik (ekonomikoak, politikoak eta formakuntza izan ezik), beste lan batzuetan ikusi den bezala (Gregorio eta Ramirez, 2000). Baieztatzen da diskriminazio gehien hautematen duen taldea dela (Solé, 2000), baina bertako gizartearekin gehien identifikatzen direnak dira, seguruenik orekatzeko konparazio baten emaitza kaltegarria (Tajfel eta Turner, 1979; Montero, 1996). Latinoamerikako populazioa aztertzean ikusten da gizonen eta emakumeen baldintzak parekoak eta positiboagoak direla. Gehienek oinarrizko beharrak asetuak dituzte, babesa jasotzen dute eta kontaktua dute talde desberdinekin, ez dute diskriminaziorik hautematen eta bertako gizartearekin identifikatzen dira, batez ere emakumeak.

Nahiz eta ikusi pertsona batzuek zailtasun sozioekonomikoak dituztela Euskal Herrira etortzeko, orokorrean esan dezakegu Latinoamerikako eta Magrebeko pertsonak gaitasunak eta errekurtsuak dituztela sortzen diren arazoei erantzun bat emateko eta egokitzapenari aurre egiteko.

Emaizta hauek planteatutako lehenengo hipotesia partzialki baieztatzen dute: a) kulturaren arabera ikusi da Magrebeko populazioak Latinoamerikako populazioak baino zailtasun gehiago dituela; b) baina ezin da baieztatu emakumeek zailtasun gehiago dituztenik, ikusi delako Magrebeko gizonak emakumeek baino zailtasun gehiago dituztela eta Latinoamerikako taldean ez dagoelako desberdintasunik gizonen eta emakumeen artean. Horrela, lan honek bat egiten du zenbait ikerketarekin, non egiaztatzen duten zenbat eta distantzia handiagoa, orduan eta zailtasun gehiago egongon direla akulturazio-prozesuan (Smith eta Bond, 1993; Ward eta Kennedy, 1999; Ward *et al.*, 2001) eta distantzia kultural handiagoa duten pertsonak pairatzen dituzten bazterketak eta diskriminazioak zailtzen dutela egokitzapen-prozesua (Nesdale eta Mak, 2003; Prilleltensky, 2008). Baina ez dute konfirmatzen emakumeen zaugarritasun handiagoa (Standing, 2000; Aroian *et al.*, 2003), ezin delako demostratu emakumeek arazo sozioekonomiko eta legal gehiago dutenik (Elgorriaga *et al.*, 2016; Standing, 2000) eta diskriminazio handiagoa bakarrik aurkitzen delako Magrebeko emakumeetan.

Ongizatea eta estresa adierazten dituzten faktoreak

Bigarren helburua magrebtarren eta latinoamerikarren estresa eta ongizatea aurreikusten dituzten faktoreak definitzea izan zen. Ikus daiteke ongizatea azaltzen duten faktoreak aldakorrek direla talde batetik bestera; aldiz, estresaren faktoreak nahiko antzekoak dira bi populazioetan. Estresa azaltzeko, emaitzek azpimarratzen dituzten faktoreek aldagai material-ekonomikoei eta babes sozialari aipamena egiten diete, non pertsonak egoera estresagarriari aurre egiteko erabiltzen dituzten tresna edo ezaugarriek taldearen arabera berezitasun batzuk azaltzen dituzten

(Folkman eta Lazarus, 1980). Horrela, magrebtar biztanlerian nabarmena da bertako biztanleriaren laguntza, hautemandako diskriminazioa eta laguntza sozialaren beharra. Latinoamerikako biztanlerian, berriz, hiru aldagai horiei autonomia soziala, bizilekua hobetzearen beharra eta familiakide gehiago alboan izatea gehitzen zaizkie. Datu hauek berresten dute estresaren aldagai azaltzaile bezala errekurtsio sozioekonomikoen garrantzia (Jasinskaja-Lahti *et al.*, 2006; Singhammer eta Bancila, 2011), edota bizileku bat aurkitu beharrak dakarren tentsioa; prekarietatea, pilaketa, osasun eza edo immigranteek pairatzen dituzten gehiegizko prezioak gehituaz (Achotegui, 2008; Hovey eta Magaña, 2000). Hala eta guztiz, bertako pertsonen laguntza (Smith eta Bond, 1993; Ward *et al.*, 2001) eta familikideen gertutasuna (sostengua eta kontaktua kontuan hartuz) estresaren babesle garrantzitsuak direla baieztatzen da (Hovey eta Magaña, 2000). Azkenik, argi geratzen da Espainiako Estatuan (Patiño eta Kirchner, 2008), beste testuinguru batzuetan egindako ikerketekin batera (adibidez, Navara eta James, 2005; Ward *et al.*, 2001), diskriminazioaren pertzepzioak bi populazioetan estresa aurrezten duela.

Ongizatea azaltzeko bi populazioetan amankomunean agertzen den aldagai bakarra haien jatorrizko herrialdeetako kideekin mantentzen duten kontaktua da (Neto, 2001), beraz ongizatearen eredu azaltzaileak ezberdinak dira populazio magrebtarrean eta latinoamerikarrean. Horrela, talde bakoitzaren ereduak prozesu migratzailearen ezaugarriekin daude lotuak: magrebtar populazioan lanaren botere azaltzailea baieztatzen da (Cuellar *et al.*, 2004), familia gertu izatea, distantzia kulturala (Ward eta Kennedy, 1999), eta bizilekuaren beharrak (Neto, 1995). Latinoamerikar populazioan aldagai azaltzaileak dira behar soziala (Maslow, 1943), bertako populazioaren sostengua (Basabe *et al.*, 2009; Hernández *et al.*, 2004), formakuntza, adina eta lan-beharra (Cuellar *et al.*, 2004). Eraitza hauetatik ondorioztatu eta baieztatzen da biztanleria migratzailearen ongizatea hein handi batean harrera-testuinguruan bizi izandako esperientziaren baitan dagoela. Horrek berresten du ezinbesteko ongizatea aurreratzeko aldagai psikosozialen nagusitasuna, aldagai soziodemografikoen aurrean (Hernández *et al.*, 2005; Neto, 1995; Sam, 1998).

Eraitzak nabarmentzen dute etorkinen prozesu migratzailea eta osasun psikologikoa azaltzen dituzten egoerak talde batetik bestera aldakorak izan daitezkeela. Ondorioz, esku-hartze psikosozialetako programak garatzeko garaian kontuan hartu behar da prozesu migratzaileko zailtasunetan prebenitzeko eta ongizate-mailak hobetzeko aldagaiak ezberdinak direla talde batetik bestera. Orokorrean, eraitza horiek adierazte dute ongizatearen ikuspegi ekologiko batetik lan egiteko beharra (Birman *et al.*, 2005), non esku-hartze psikosozialak pertsonen autonomia pertsonal eta soziala garatzeko tresnak eskaini behar baititu, alde batera utzita esku-hartze asistentzialak. Era berean, ekintzak taldeetan egitea sustatzen da elkarrekintza soziala indartzeko eta ikerketa honetan aurki daitezkeen ongizatearen fenomeno moderatzaileak errazteko: kohesioa, sostengu soziala, gaitasun sozialen ikaskuntza, identitate amankomunaren sendotzea eta etorkizunaren itxaropena immigrazioaren zoritxarrei aurre egiteko.

Etorकिन ongizatea eta estres-maila bertako biztanleriarekin konparatuta

Azkeneko helburuan aztertzen da ea biztanleria migratzaileak, Euskal biztanleriarekin alderatuz eta sexua kontuan hartuz, estres gehiago eta ongizate gutxiago duen. Datuek adierazi dute Magrebeko populazioak, Latinoamerikako eta bertako populazioarekin alderatuta, estres gehiago eta ongizate gutxiago adierazten duela. Emaiza hauek partzialki konfirmatzen dute hirugarren hipotesia, ikusi delako Magrebekoak estres eta ondoez gehiago duten pertsonak direla, baina ez dela aurkitu Latinoamerikako pertsonak bertako pertsonak baino okerrago egotea. Magrebeko taldea aztertzen denean, akulturazioaren estresaren hipotesiaren suposizioak konfirmatzen dira, etorkinek bertako pertsonak baino estres edo ondoez gehiago adierazten dutelako (Berry eta Sam, 1996). Emaiza hauek beste ikerketa batzuetan baieztatu dira (adibidez, Cuellar *et al.*, 2004; Singhammer eta Bancilla, 2011). Aldi berean, kultur distantziaren suposizioen norabide berdinean doaz, hau da, distantzia handiagoa dagoenean zailtasun sozioekonomiko eta kultural gehiago, azaltzen dira, baita bazterketa-egoera gehiago ere (Nesdale eta Mak, 2003) eta horrekin estresa edo ondoez agertzeko probabilitatea handiagoa da (Ward *et al.*, 2001). Lagina honetan konfirmatzen da Magrebeko pertsonak zailtasun gehiago dituztela eta latinoamerikarrek baino diskriminazio gehiago hautematen dutela. Bestetik, Latinoamerikako pertsonen egoera esplikatzeke egokiagoa da atzerriar osasuntsuaren paradoxaren hipotesia: defendatzen dute etorkinen osasuna bertakoenarekin konparatuta berdina edo hobea dela (Markides eta Coreil, 1986). Emaiza hauek babesten dute Sevillano eta lagunek (2013) aurkitu zutena testuinguru berdinean, baina osasun fisiko eta mentaleko neurriekin. Arlo psikologikoan ikusi zuten Kolonbiako pertsonen osasun mentala bertakoena bezalakoa zela, baina beste taldeek, horien artean magrebtarrek, osasun okerragoa zuten. Ondorio berdintsuetara ailegatu ziren Thapa *et al.* (2007) Norvegiar egindako ikerketa batean, non etorkinen jatorriaren arabera hipotesi bat edo bestea konfirmatzen zen.

Azkenik, ez da aurkitu emakumeek gizonek baino estres eta ondoez gehiago adieraztea, laugarren hipotesian proposatzen genuen bezala. Emaiza hauek literaturan dauden ikerketa askoren kontra doaz (adibidez, Aroian *et al.*, 2003; Patiño eta Kirchner, 2008; Solé, 2000;). Azpimarratu behar da gero eta lan gehiagok erakusten dutela bai gizonek bai emakumeek estres-maila berdina adierazten dutela (adibidez, Teixeira de Almeida eta Vaz, 2011; Lahoz eta Forns, 2013). Ikerketa batzuen arabera, emakumeek akulturazio-prozesuan estresaren hautemate handiagoa izaten dute jasan behar dituzten zailtasunengatik, hala eta guztiz ere, Euskal Herrian eginiko ikerketek (Elgorriaga *et al.*, 2012; Sevillano *et al.*, 2013) baieztatu dute emakume eta gizon etorkinen egoera sozioekonomikoa eta diskriminazio-pertzepzioa antzekoak direla eta horrek aditzera ematen du estresaren pertzepzioan desberdintasunik ez egotea. Bestetik, ondoezaren inguruan dauden ikerketetan kontraesanak daude: batzuek egiaztatu dute gizonek ongizate gehiago adierazten dutela (Cuellar *et al.*, 2004; Neto, 2001), beste batzuek emakumeek gehiago dutela (Chen, Benet-Martínez eta Bond, 2008; Utsey eta Payne, 2000) eta beste batzuek ez dute desberdintasunik aurkitu (Hernández, Pozo eta Alonso, 2004; Van Selm, Sam eta Van Oudenhoven, 2002). Kasu horietan behatu da generoaren eragina aztertzen ari den kultur taldearen araberrakoa dela, horrela,

emakume magrebtarrek ongizate gehiago dute gizonekin alderatuz, baina biztalaria latinoamerikarrean edo bertakoan ez da ezberditansun estatistikoki esanguratsurik azaltzen emakume eta gizonen artean.

Ikerlanaren mugak eta ikertzeko dauden ildoak

Bukatzeko beharrezkoa da lan honen muga kontzientzia izatea. Lehenik, lagina gure testuingurukoa izanik, zaila da emaitzak beste testuinguruetara zabaltzea. Hala ere, ikerketa honetan aurkitutako datuak erabilgarriak dira beste testuinguru soziokultural antzekoetan gertatzen dena ulertzeko. Bigarrenik, kulturaren eta sexuaren erregresio-analisiak ezin izan dira egin, lagina ez delako behar bezain handia. Hirugarrenik, interesgarria izango litzateke metodologia kuantitatibo metodologia kualitatiboarekin osatzea, horrela, etorkinen egoera eta ongizatearen inguruan gehiago sakonduko litzateke. Azkenik, lagina lortzeko zailtasunen ondorioz, biztanleria immigrateen estres-maila alderatu egin da beste etorkin talde batekin edo bertako biztanleria talde batekin, beste ikerketa batzuetan egin den bezala (adibidez, Cuellar *et al.*, 2004; Singhammer eta Bancilla, 2011). Hala eta guztiz ere, horrek ez du baimentzen migrazioa gertatu eta gero estres-maila haunditu, mantendu eta txikitu egiten denik. Zentzu horretan, egoera egokiena ikerketa longitudinalak egitea izango litzateke: migrazioan pre eta pots datuekin edo hori egin ezean lagina lortu jatorrizko herrialdeetan. Horrek lagunduko luke estresaren ulermenean eta prozesu migratorioarekin duen loturan sakontzeko.

Mugak alde batera utzita, ikerketa honen emaitzek agerian uzten dute nola pertsona immigranteen jatorri kulturalak eta generoak akulturazio-prozesua eta estres- eta ongizate-mailak baldintzatzen dituzten. Begi-bistan jartzen dute ere akulturazio-prozesuak eta bertako protagonistak ikertzen jarraitzeko beharra, ongizatearekin lotua dagoen analisiak duen aniztasun- eta konplexutasun-mailaren ondorioz, aldagai estruktural bezala generoa eta jatorri kulturala kontuan hartuz eta zeharkako bezala biztalaria immigranteak bizi dituen prozesu guztiak.

Erreferentziak

- Achotegui, J. (2004): «Emigrar en situación extrema: el Síndrome del inmigrante con estrés crónico y múltiple (Síndrome de Ulises)», *Norte de Salud Mental*, **21**, 39-52.
- , (2008): «Migración y crisis: el síndrome del inmigrante con estrés crónico y múltiple (Síndrome de Ulises)», *Avances en Salud Mental Relacional*, **7**, 1-22.
- Amponsah, M.O. (2010): «Non UK university students stress levels and their coping strategies», *Educational Research*, **1**, 88-98.
- Arnos, A.; Martínez-Taboada, C.; Elgorriaga, E. eta Otero, N. (2009): «Minorías culturales y representaciones: identidades y trayectorias socio comunitarias», in F. Cintrón Bou, E. Acosta Pérez, eta L. Díaz Mendez (ed.), *Psicología Comunitaria: Interviniendo con comunidades en las Américas*, Publicaciones Puertorriqueñas, Hato Rey, Puerto Rico, 303-322.
- Aroian, K.J., Norris, A.E. eta Chiang, L. (2003): «Gender differences in psychological distress among immigrants from the former Soviet Union», *Sex Roles*, **48**, 39-51, doi: 10.1023/A:1022392528490.

- Atienza, F.L., Pons, D., Balaguer, I. eta García-Merita, M. (2000): «Propiedades psicométricas de la escala de satisfacción con la vida en adolescentes», *Psicothema*, **12**, 314-319.
- Baltatescu, S. (2005): «Subjective well-being of immigrants in Europe. A comparative study. European Identity and Free Movement of Persons in Europe. Oradea, Rumania», in L. Pop eta C. Matiuta (ed.), *European Identity and Free Movement of Persons in Europe*, University of Oradea Publishing House, Oradea, Rumania, 128-143.
- Bartram, D. (2011): «Economic migration and happiness: comparing immigrants' and natives' happiness gains from income», *Social Indicators Research*, **103**, 57-76, doi: 10.1007/s11205-010-9696-2.
- Basabe, N.; Zlobina, A. eta Páez, D. (2004): «Integración sociocultural y adaptación psicológica de los inmigrantes extranjeros en el País Vasco», *Cuadernos Sociológicos Vascos*, **15**, Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- Basabe, N.; Páez, D., Aierdi, X. eta Jiménez-Aristizabal, A. (2009): «Salud e inmigración. Aculturación, bienestar subjetivo y calidad de vida. Ikuspegi. Inmigratioaren euskal behatokia», *Colección Ikusgai Bilduma*, **3**, Itxaropena, Zarautz.
- Bergami, M. eta Bagozzi, R. (2000): «Self-categorization, affective commitment and group self-esteem as distinct aspects of social identity in the organization», *British Journal of Social Psychology*, **39**, 555-577, doi: 10.1348/014466600164633.
- Berry, J.W.; Kim, V.; Minde, T. eta Mok, D. (1987): «Comparative studies of acculturative stress», *International Migration Review*, **21**, 491-511, doi: 10.2307/2546607.
- Berry, J.W. eta Sam, D.L. (1996): «Acculturation and adaptation», in J.W. Berry, M.H. Senegall eta C. Kagitçibasi (ed.), *Handbook of cross-cultural psychology. Social behaviour and application*, Allyn & Bacon, Boston, 291-326.
- Berry, J.W. (1997): «Immigration, acculturation, and adaptation», *Applied Psychology: An International Review*, **46**, 5-68, doi: 10.1111/j.1464-0597.1997.tb01087
- , (2003): «Conceptual approaches to acculturation», in K. Chung, P. Balls-Organista eta G. Marin (ed.), *Acculturation: Advances in Theory, Measurement, and Applied Research*, American Psychological Association, Washington, 17-37.
- Birman, D.; Trickett, E. eta Buchanan, R. (2005): «A tale of two cities: Replication of a study on the acculturation and adaptation of immigrant adolescents from the Former Soviet Union in a different community context», *American Journal of Community Psychology*, **35**, 83-101, doi: 10.1007/s 10464-005-1891-y.
- Chen, S.X., Benet-Martínez, V. eta Bond, M.H. (2008): «Bicultural identity, bilingualism, and psychological adjustment in multicultural societies: immigration-based and globalization-based acculturation», *Journal of Personality*, **76**, 803-837.
- Cohen, S.; Kamarck, T. eta Mermelstein, R. (1983): «A global measure of perceived stress», *Journal of Health and Social Behavior*, **24**, 385-396, doi:10.2307/2136404.
- Cuellar, I.; Bastida, E. eta Braccio, S. M. (2004): «Residency in the United States, subjective well-being, and depression in an older Mexican-origin sample», *Journal of Aging and Health*, **16**, 447-466, doi: 10.1177/0898264304265764.
- Diener, E.; Emmons, R.A.; Larsen, R.J. eta Griffin, S. (1985): «The satisfaction with life scale», *Journal of Personality Assessment*, **49**, 71-75.
- Díez Nicolas, J. (2010): «Construcción de un índice de Xenofobia-Racismo», *Ministerio del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, **80**, 21-38.
- Elgorriaga, E.; Arnosó, A.; Martínez-Taboada, C. eta Otero, N. (2012): «Proceso migratorio y ajuste psicológico de las mujeres latinoamericanas y magrebíes», *Migraciones*, **31**, 125-154.
- Elgorriaga, E.; Ibabe, I. eta Arnosó, A. (2014): «Psychosocial adjustment of Spanish emigrants and non-emigrants», *Procedia – Social and Behavioral Sciences*, **131**, 382-385, doi: 10.1016/j.sbspro.2014.04.134

- Elgorriaga, E.; Ibabe, I. eta Arnosó, A. (2016). «Españoles que emigran a países de la Unión Europea: predictores de su ajuste psicológico», *Revista de Psicología Social*, **31**, 332-351.
- Finch, B.K. eta Vega, W.A. (2003): «Acculturation stress, social support, and self-rated health among Latinos in California», *Journal of Immigrant Health*, **5**, 109-117.
- Folkman, S. eta Lazarus, R.S. (1980): «An analysis of coping in a middle-aged community sample», *Journal of Health and Social Behavior*, **21**, 219-239, doi: 10.2307/2136617.
- Gregorio, C. (1997): «El estudio de las migraciones internacionales desde la perspectiva del género», *Migraciones*, **1**, 145-175.
- Gregorio, C eta Ramírez, A (2000): «¿En España es diferente?: la inmigración femenina y los cambios en la concepción del trabajo», *Papers. Revista de Sociología*, **60**, 257-273.
- Hernández, S.; Pozo, C. eta Alonso, E. (2004): «Apoyo social y bienestar subjetivo en un colectivo de inmigrantes. ¿Efectos directos o amortiguadores?», *Boletín de Psicología*, **80**, 79-96.
- Hernández, S.; Pozo, C.; Alonso, E. eta Martos, J. M. (2005): «Estructura y funciones del apoyo social en un colectivo de inmigrantes marroquíes», *Anales de Psicología*, **21**, 304-315.
- Hovey, J.D. eta Magaña, C.G. (2000): «Acculturative stress, anxiety, and depression among Mexican immigrant farmworkers in the Midwest United States», *Journal of Immigrant Health*, **2**, 119-131, doi: 10.1023/A:1009556802759.
- Ikuspegi (2010): «Barómetro Ikuspegi: Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera», *Panorámica de la inmigración*, 36, Immigrazioaren Euskal Behatokia.
- INE Instituto Nacional de Estadística, (2014): Explotación estadística del Padrón de Inmigrantes residentes en España, <<http://www.ine.es/prensa/np854.pdf>> helbidetik berreskuratua.
- , (2017): Explotación estadística del Padrón de Inmigrantes residentes en España, <<http://www.ine.es/jaxi/Tabla.htm?path=/t20/e245/p04/provi/10/&file=0ccaa002.px>> helbidetik berreskuratua.
- Irfaeya, M.; Maxwell, A.E. eta Krämer, A. (2008): «Assessing psychological stress among Arab migrant women in the city of Cologne/Germany using the community oriented primary care (COPC) approach», *Journal of Immigrant Minority Health*, **10**, 337-344.
- Jasinskaja-Lahti, I.; Liebkind, K. eta Perhoniemi, R. (2006): «Perceived discrimination and well-being: a victim study of different immigrant groups», *Journal of Community and Applied Social Psychology*, **16**, 267-284, doi: 10.1002/casp.865.
- Lahoz, S. eta Forns, M. (2013): «Cuestionario de estrés percibido aplicado al proceso migratorio», *Ansiedad y Estrés*, **19**, 27-39.
- Lazarus, R.S. eta Folkman, S. (1984): *Stress, appraisal and coping*, Springer, New York.
- Markides, K.S. eta Coreil, J. (1986): «The health of Hispanics in the southwestern United States: an epidemiologic paradox», *Public health reports*, **101**, 253-265.
- Martínez-Taboada, C.; Arnosó, A. eta Elgorriaga, E. (2006): *Estudio del Choque Psicosocial de la población inmigrada a Donostia*, Donostiako Udala, Donostia.
- Maslow, A. (1943): «A theory of human motivation», *Psychological Review*, **50**, 370-396.
- Montero, M. (1996): «Identidad social negativa y crisis socioeconómica: Un estudio psicosocial», *Revista Interamericana de Psicología*, **30**, 43-58.
- Navara, G.S. eta James, S. (2005): «Acculturative stress of missionaries: Does religious orientation affect religious coping and adjustment?», *International Journal of Intercultural Relations*, **29**, 39-58, doi: 10.1016/j.ijintrel.2005.04.004.
- Navas, M.S. eta Cuadrado, I. (2003): «Actitudes hacia inmigrantes africanos y gitanos: un estudio comparativo», *Apuntes de Psicología*, **21**, 29-49.

- Nesdale, D. eta Mak, A. (2003): «Ethnic identification, self-esteem and immigrant psychological health», *International Journal of Intercultural Relations*, **27**, 23-40, doi: 10.1016/S0147-1767(02)00062-7.
- Neto, F. (1995): «Predictors of satisfaction with life among second generation migrants», *Social Indicators Research*, **35**, 93-116.
- , (2001): «Satisfaction with life among adolescents from immigrant families in Portugal», *Journal of Youth and Adolescence*, **30**, 53-67.
- Organista, P.B.; Organista, K.C. eta Kurasaki, K. (2002): «The relationship between acculturation and ethnic minority mental health», in K.M. Chun, R.B. Organista, eta G. Marine (ed.), *Acculturation: Advances in theory, measurement, and applied research*, American Psychological Association, Washington, DC, 139-161.
- Patiño, C. eta Kirchner, T. (2008): «Estrés y coping en inmigrantes latinoamericanos residentes en Barcelona», *Revista Iberoamericana de psicología: Ciencia y Tecnología*, **1**, 29-38.
- Prilleltensky, I. (2008): «The role of power in wellness, oppression, and liberation: the promise of psychopolitical validity», *Journal of community psychology*, **36**, 116-136, doi: 10.1002/jcop.20225.
- Remor, E. eta Carrobes, J.A. (2001): «Versión Española de la escala de estrés percibido (PSS-14): Estudio psicométrico en una muestra VIH+», *Ansiedad y Estrés*, **7**, 195-201.
- Sam, D.L. (1998): «Predicting life satisfaction among adolescents from immigrant families in Norway», *Ethnicity and Health*, **3**, 5-18.
- Sevillano, V.; Basabe, N.; Bobowik, M. eta Aierdi, X. (2013): «Health-related quality of life, ethnicity and perceived discrimination among immigrants and natives in Spain», *Ethnicity and Health*, **19**(2), 178-197, doi:10.1080/13557858.2013.797569.
- Singhammer, J. eta Bancila, D. (2011): «Associations between stressful events and self-reported mental health problems among non-western immigrants in Denmark», *Journal of Immigrant Minority Health*, **13**, 371-378, doi: 10.1007/s10903-009-9281-4.
- Smith, P.B. eta Bond, M.H. (1993): *Social psychology across cultures*, Harvester Wheatsheaf, New York.
- Solé, C. (2000): «Inmigración interior e inmigración exterior», *Papers*, **60**, 211-224.
- Standing, H. (2000): «Gender: A missing dimension in human resource policy and planning for health reforms», *Human Resources for Health Development Journal*, **4**, 27-42.
- Tajfel, H. eta Turner, J.C. (1979): «An integrative theory of inter-group conflict», in W.G. Austin eta S. Worchel (ed.), *The social psychology of intergroup relations*, Brooks/Cole, Monterey, CA, 33-47.
- Taylor, S.J. eta Bogdan, R. (1986): *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*, Paidós, Buenos Aires.
- Teixeira de Almeida, A.P. eta Vaz, A. (2011): «Vulnerability to stress in migratory contexts: a study with Eastern European immigrants residing in Portugal», *Journal of Immigrant Minority Health*, **13**, 690-696, doi: 10.1007/s10903-011-9451-z.
- Thapa, S.B.; Daalgard, O.S.; Clausen, B.; Sandvick, L. eta Hauff, E. (2007): «Psychological distress among immigrants from high- and low-income countries: findings from the Oslo Health Study», *Nordic Journal of Psychiatry*, **61**, 459-465, doi: 10.1080/08039480701773261.
- Utsey, S.O. eta Payne, Y.A. (2000): «Differential psychological and emotional impacts of face-related stress», *Journal of African American men*, **5**, 56-72.
- Van Selm, K.; Sam, D.L. eta Van Oudenhoven, J.P. (2002): «Life satisfaction and competence of Bosnian refugees in Norway», *Scandinavian Journal of Psychology*, **38**, 143-149.

- Vega, W.A.; Kolody, B.; Aguilar-Gaxiola, S.; Alderete, E.; Catalano, R. eta Caraveo-Anduaga, J. (1998): «Lifetime prevalence of *DSM-III-R* psychiatric disorders among urban and rural Mexican Americans in California», *Archives of General Psychiatry*, **55**, 771-778.
- Vergara, A.I. eta Balluerka, N. (2000): «Metodología en la investigación transcultural: perspectivas actuales», *Psicothema*, **12**, 557-562, doi: 10.1007/s10903-011-9451-z.
- Ward, C. eta Kennedy, A. (1999): «The measurement of sociocultural adaptation», *International Journal of Intercultural Relations*, **23**, 659-677, doi: 10.1016/S0147-1767(99)00014-0.
- Ward, C.; Bochner, S. eta Furnham, A. (2001): *The psychology of culture shock*, Routledge, Hove, UK.
- Ward, C. eta Kagitcibasi, C. (2010): «Applied acculturation research: working with, for, and beyond communities», *International Journal of Intercultural Relations*, **34**, 186-189, doi: 10.1016/j.ijintrel.2010.02.002.
- WHO (2010): *How health systems can address health inequalities linked to migration and ethnicity*, Copenhagen, WHO Regional Office for Europe, <http://www.euro.who.int/__data/assets/pdf_file/0005/127526/e94497.pdf>.
- Wittig, U.; Lindert, J.; Merbach, M. eta Brähler, E. (2008): «Mental health of patients from different cultures in Germany», *European Psychiatry*, **1**, 28-35, doi: 10.1016/S0924-9338(08)70059-2.
- Zlobina, A.; Basabe, N.; Páez, D. eta Furnham, A. (2006): «Sociocultural adjustment of immigrants: universal and group-specific predictors», *International Journal of Intercultural Relations*, **30**, 195-211.

